



Bi munduen artean

Heziketa hipermodernoari kritika

Mitxelko Uranga

Saio eta Testigantza, 247

978-84-9172-258-8

2021. urtea - 240 or. - 15x21 cm

19,00 €

Liburu honek ez du paradigma jakin baten aldeko aldarririk egingo. Ez neutraltasun huts baten atzean ezkutatu nahi dudalako, bi munduen arteko muga bizi naizelako baizik; hots, paradigma moderno edo tradizionala gustuko ez dudan moduan, berri edo postmodernoarekiko ere mesfidati agertzen naizelako. Horrenbestez, liburu honen helburu nagusia nagusitzen ari den paradigma berriari kritika egitea da, paradigma modernoa edo tradizionala jada aski kritikatu izan baita. Eta, kritika esaten dudanean, Hans Magnus Enzensberger-ek esaten zue-na adierazi nahi dut. Haren hitzetan, kritikaren helburu nagusia ez da salaketa, hausnarketa baizik, hausnarketak ahalbidetzen baitu errealitatearen gaineko bigarren ikuspegi bat, begirada askoz zorrotz eta argiagoa. Ezinbestekoa zaigu bigarren begirada zorrotz hori, lehenengoak aurreiritzietan gotortzera zuzentzen baikaitu; hots, bigarren begiradak natural eta normaltzat dugun hori besterik gabe onartzea ukatzera bultzatzen gaitu. Horixe bera nahi du izan, beraz, liburu honek: (nire) bigarren begirada zorrotz bat.



Mitxelko Uranga

Filosofian doktorea, jakintza hori irakasten du Bigarren Hezkuntzan. Azken urteetan euskal kultura zein identitatearen inguruko zenbait saiakera plazaratu ditu: *Espektroak. Euskal Terroristak* (Utriusque Vasconiae, 2010), *Espektroak. Gutun bat euskalduntasunari buruz* (Utriusque Vasconiae, 2011), *Espektroak. Euskaldunak Europan* (Utriusque Vasconiae, 2012), trilogia osatzen duen *Euskomunitatea* (Utriusque Vasconiae, 2013), *Eros(ki). Merkatuaren erotizazioa, erotismoaren merkantilizazioa* (Pamiela, 2014; Juan Zelaia Saria, 2013), *Tartarora. Mina, boterea eta egia* (Pamiela, 2015; Euskadi Saria, 2016), *Eoskola. Heziketa hipermoderna* (Pamiela, 2017) eta *Misentropia* (Erein, 2017; Unamuno Saria, 2016).

Pentsamenduaz gain, poesia ere landu eta argitaratu du: *Mitxoleta elektrikoetan koleopteroak* (Ediciones Beta, 2010).

